| IKASTETXEENTZAKO JARRAIBIDEAK EGILE-ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO | INSTRUCCIÓN PARA LOS CENTROS ESCOLARES SOBRE EL RESPETO A LOS DERECHOS DE AUTOR |
|---|---|
| Hezkuntza Administrazioak egile-eskubideen gaineko errespetua bultzatu behar du geletan eta ikastetxeen eguneroko kudeaketan eta jardueran. Hori dela eta, hezkuntza-komunitateko kide guztiek jakin behar dute literatura-, arte- edo zientzia-lanen jabetza intelektuala lanaren egilearena dela, berak sortu duelako. Beraz, egileak eskubide jakin batzuk ditu, eta denok errespetatu behar ditugu. | La Administración Educativa debe impulsar el respeto a los “Derechos de Autor” en las aulas y en la gestión y actividad diaria de los Centros. Es por ello que todos los miembros de la comunidad educativa deben conocer que la propiedad intelectual de una obra literaria, artística o científica corresponde al autor por el solo hecho de su creación, y que ser autor conlleva el tener reconocidos una serie de derechos que todos debemos respetar. |
| Jabetza Intelektualari buruzko Legeak 32. artikuluak arautzen ditu eskubide horiek, eta eskubide horiei jarri behar zaizkien mugak ere deskribatzen dizkigu (apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak Jabetza Intelektualaren testu bategina onartu zuen, eta uztailaren 7ko 23/2006 Legeak aldatu). | La Ley de Propiedad Intelectual (Texto refundido aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, modificado por la Ley 23/2006, de 7 de julio) regula, en su Art. 32, esos derechos y también nos describe los límites que se les aplican. |
| Zehatz esanda, hezkuntza arautuko irakasleek ez dute egilearen baimenik behar lan-zatitxoak edo lan plastiko edo fotografiko figuratiboak banaka kopiatu eta ikasleen artean banatu eta zabaltzeko. | En concreto, el profesorado de la educación reglada no necesita autorización del autor para realizar actos de reproducción, distribución y comunicación pública de pequeños fragmentos de obras o de obras aisladas de carácter plástico o fotográfico figurativo. |
| Dena den, hori bakarrik egin daiteke ikasgeletan hezkuntza-jarduerak azaltzeko; lanak, berriz, zatika baino ez dira erabiliko. Horretarako, lanek jendarteratuta egon behar dute, eta, ahal izanez gero, irakasleek aipatu egin beharko dute nor den egilea eta zein iturritatik atera duten zatia. | Esta utilización únicamente puede tener lugar para la ilustración de las actividades educativas en las aulas; y las obras, para poder utilizarse de forma fraccionada, han de estar, previamente, divulgadas, y en lo posible, el profesorado deberá hacer referencia a quién es el autor y la fuente de donde se ha extraído el fragmento. |
| Salbuespena dira unibertsitateko testuliburuak eta eskuliburuak; izan ere, babestutako lanaren egilearen baimenik gabe ezin izango dira osorik edo zatika kopiatu, banatu edo zabaldu. | Quedan expresamente exceptuados los libros de texto y los manuales universitarios que en ningún caso se reproducirán, distribuirán ni comunicarán, ni total ni parcialmente, sin la debida autorización de quién ostente la autoría de la obra protegida. |

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 66 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huiscesc@ej-gv.es